

ALKOHOLEMIA TASA

Alkoholemia edari alkoholdunak edan ondoren odolean dagoen alkohol-kopurua da. Gramotan neurtzen da, litro odol bakoitzeko (g/l). Zuzenean odolean edo zeharka botatako arnasaren bidez (botatako arnasan 0,25 mg/l = odolean 0,5 g/l)

Alkoholemia-tasa areagotzen doa edan ondoko lehen orduan. Nahiko erraz hartzen da, kontuan hartuta jan den edo ez. Ordu bete behar da, gutxi gorabehera, ondorioak antzemateko; beraz, edan eta jarraian hartzen bada autoa, alkoholemia oraindik ari da igotzen.

Aurreikus daitekeen alkoholemia (g/l) = hartutako gramo alkohol absolutuak
gorputz-pisua kg-tan x \square 7 (gizonak) edo 0,6 (emakumeak)

ALKOHOLA ETA GIDATZEA

ALKOHOLEMIA TASA, BAIMENDUTAKO MUGAK:
(Gramo alkohol / litro odol) (Miligramo alkohol / litro aire)

0,5 g/l odolean - 0,25 mg/l botatako arnasan

motozikletak eta turismoak gidatzeko

0,3 g/l odolean - 0,15 mg/l botatako arnasan

salgaien garraiorako ibilgailuak, garraio publikoko eta eskola garraiorako ibilgailuak eta larrialdietako zerbitzuetarako ibilgailuak gidatzean eta gidari berrientzat.

Nahiz eta autoa edo motorra gidatzea jarduera automatikoa dela pentsatu, ibilgailuak gidatzeak koordinaziorako ahalegin handia eskatzen du. Alkoholak aldatu egiten du ikusmen-pertzepzioa, erreakzio-denbora eta mugimenduen koordinazioa, gidatzen ari denak urritasunak dituela konturatu baino askoz ere azkarrago, eta istripuen ondoriozko heriotzen %40ren kausa da.

Alkohola beste droga batzuekin nahasten denean, deskribatutako nahasketa horiek gogorragoak dira (droga depresoreak), eta segurtasun faltsuko sentsazioa ematen dute (droga estimulatzailerak); horrela, bada, erabat biderkatzen da istripuen arriskua.

Gazteengan alkoholaren ondorioak gidatzean esanguratsuagoak dira. Gazteriarri berari lotutako ezaugarriak direla eta (gidatzen esperientzia gutxiago, kontsumo handiak

asteburuetan, beste substantzia batzuen aldi bereko kontsumoa, jokabide deshinibitua, etab.), adin hau bereziki ahula da.

ALKOHOLEMIA INDIZEA KALKULATZEKO TAULA ORIENTATZAILEA

Edariak	Alkoholemia gizon helduetan (Batez besteko pisua: 70 Kg.)	Alkoholemia emakume helduetan (Batez besteko pisua: 60 Kg.)
Kaña bat garagardo (200 ml – 6°)	0,20 g/l	0,27 g/l
Baso bat ardo/cava (100 ml -13°)	0,21 g/l	0,28 g/l
Konbinatua (60 ml - 40°)	0,39 g/l	0,53 g/l

gizon batean
3 garagardo edo 3 ardo nahikoa da **0.5 g/l**-ko alkoholemia-mailara iristeko

emakume batean
2 garagardo do 2 ardo nahikoa da **0.5 g/l**-ko alkoholemia-mailara iristeko

Alkoholemia g/l	Faseak	Ondorioak
0.3 - 0.5	MOZKORRALDIA ARINA	<ul style="list-style-type: none"> ↻ errendimendu psikomotorrean kalte arina ↻ argien pertzepzioaren murrizketa ↻ distantzien pertzepzioaren aldaketa ↻ ikusmen-eremuaren gutxitzea (tunel efektua) ↻ euforia arina ↻ ahalmenen neurritz kanpoko balorazioa
0.5 - 1	MOZKORRALDIA ERTAINA	<ul style="list-style-type: none"> ↻ errendimendu psikomotorraren narriadura ertaina ↻ eskuen koordinazioaren asaldura ↻ Argi gorriaren pertzepzioaren narriadura ↻ Erreakzionatzeko denbora areagotzea ↻ Oldarkortasuna eta agresibitatea gidatzean ↻ Deshinibitzea ↻ Euforia da nagusi, benetako arriskuen kontzientziatorik gabe ↻ Hitz egiteko eta mugimenduak koordinatzeko zailtasunak
1 - 2	MOZKORRALDI HANDIA	<ul style="list-style-type: none"> ↻ Errendimendu psikomotorraren narriadura larria ↻ Ausarkeriazko gidatzea, arriskua ez antzemateagatik ↻ Ikusmen-zolitasunaren murrizketa ↻ Periferiako ikusmenaren murrizketa eta itsualdiagatiko berreskurapenaren murrizketa ↻ Ikusmen lausoa edo bikoitza ↻ Mugimenduen koordinazio falta ↻ Agresibitatea ↻ Gehiegizko euforia ↻ Mozkorraldia; Hordialdia ↻ Goi-ahalmenen kontrola galtzea.
2 - 3	MOZKORRALDIA OSOA	<ul style="list-style-type: none"> ↻ Errendimendu psikomotorraren narriadura oso larria ↻ Ikusmen oso lausoa ↻ Deskoordinazio larria ↻ Nahasmena ↻ Apatia- eta logura-egoera
3 - 5	KOMA	<ul style="list-style-type: none"> ↻ Koma ↻ Gidatzeko ezintasuna
> 5	HERIOTZA	<ul style="list-style-type: none"> ↻ Heriotza arnas zentroen eta zentro basomotorren paralisierengatik.